

Euskal Herriko zientzialariei:

Agur t'erdi,

Aspalditik COVID-19ari buruz baino ez da hitz egiten, eta kontsultatu nahi nizuekeen duda bat piztu zait, zuek, zientzialariak edo/eta zientziaren eta egia zientifikoaren zaleak zareten aldetik, duda hau argitzen lagun diezadazuen, ahal den neurrian.

Higienearekin eta osasunarekin zerikusia duen guztiak egun hauetan hartu duen garrantzia, itzela ez ezik, «tragikoa» ere bada. Gaixotzea ez dago gure esku, baina ez gaixotzen saiatzeko neurri higienikoak hartzea bai, gure esku dago.

Piztu zaidan dudak zerikusia du osasunarekin, zaborrekin eta Covid-19arekin.

Ia 30 urte daramatzat \*\*\*ko herrian bizitzen eta gure herrian izan diren zaborra biltzeko sistema guztiak ezagutu ditut, «atez ate» izeneko sistema barne. Etxean beti praktikatu dugu gaikako zabor bilketa, baina ez obligazioz, konbentzimenduz baizik, dela sistema batekin dela beste batekin.

Hala eta guztiz ere, pandemia honen erdian, ezin duzue imajinatu ere egin zeinen zoriontsu eta zeinen lasai nagoen, herriko zabor guztiak gako batetik zintzilik ez daudela jakinda.

Zientzialariak zareten aldetik, ez al duzue uste milioi bat aldiz seguruagoa eta higienikoagoa dela etxeko zaborrak edukiontzi itxietan edukitzea eta horiek biltzeko manipulazioa erabat automatizatuta egotea, herriko kaleetan eta espaloietan zehar, ehunka ez, baizik eta milaka zabor poltsatan sakabanatuta izan ordez?

Ia ez gara ausartzen supermerkatuetatik ekartzen ditugun produktuen ontziak ukitzen ere, mezulariek ekartzen dizkiguten fardelak manipulatzeko eskularruak janzten ditugu, eta kartoizko eta plastikozko enbalajeak etxetik lehenbailehen ateratzen lehiatzen gara...; aldiz, janari hondarrez eta mota guztietako hondakinez jositako milaka eta milaka poltsa uzten ditugu geure kaleetan eta herrietan, gako batetik zintzilik edota lurtean bertan –txakur, katu, arratoi eta intsektuen bazka, sarri baino sarriagotan.

\*\*\*ko herrian, esaterako, ia 20.000 lagun bizi dira. Janari-hondarrak ontzi txiki batera botatzen dira, hola, poltsatxo birziklagarri bat sikiera erabili ere egin gabe. Janari-hondar horietako asko alde aurretik milaka lagun ahotik igaro dira, listu-hondarrez jositako egoten dira, eta lagun horietako batzuk COVID-19az kutsatuta egon daitezke, sintomekin ala sintomarik gabe, ehunka eta ehunka ontzi gai organikoak josiak herri osoan zehar sakabanatuta, mekanikoki bildu ordez "antigoaleko usadiora" biltzen direnak, eskuz alegia: ontzia hartu, tapakia ireki, edukia kamioian irauli, tapakia itxi eta berriro bere lekuan utzi. Horrela, zenbat ontzirekin: 2.000, 3.000, 4.000ekin? Eta astean behin edo bitan.

Zuek, zientzialariak zareten aldetik, benetan uste al duzue zaborrak tratatzeko biderik higienikoena hori dela... pandemia baten erdian? Benetan uste al duzue zaborrak biltzeaz arduratzen diren langileen osasuna babesteko biderik ziurrena hori dela... horrelako egoera batean? Gure lurraldean ingurumen osasunaz kezkatutako sendagile-elkarteren bat ezagutuko bazenute, inportako al litzazueke haiei galdetzea ea zer iruditzen zaien higienaren eta

osasunaren ikuspuntutik zaborrak kalean sakabanatuta edukitzea eta zabor-bilketak eskuz egitea, bilketa horiek ahalik eta gehien mekanizatu ordez, noiz-eta pandemia baten erdian?

Zientzia-aldizkari batetik iritsi zaidan mezu elektronikoan komentatzen den bezala, nik ere zinez espero dut, ezen, irudiaz harago eta epe laburreko ondorioez harago, ahal den guztia egingo duzuela nire zalantzak argitzeko, eta gure gizarteko kideetako bakoitzaren osasunak merezi duen arduraz eta erantzukizunez erantzungo duzuela. Orobat, zinez ere espero dut zientzialari gisa daukazuen iritziak ez egotea inolaz ere biziata ez ideologiengatik ez ezein motatako interes alderdikiengatik.

Har ezazue agur bero bat,

X. G.